

Diru-sarrerak



Gure enpresak, dirua hiru modutan lortuko du:

- Lehendabiziko modua, ordainketa bakarreko diru-sarrera izango da, hau da, lokalek, gure sentsorea erostean ordainketa bakarra egingo dute. (Diru sarreraren %20)
- Bigarren modua, berriz, gure sentsorea erosi duten enpresak, beraien negozioari etekin handiena ateratzeko eta gure aplikazioan beraien izena edo lokala agertzeko hilabetero ordaindu beharko dute, hots, ordainketa errepikaria. (Diru sarreraren %45)
- Hirugarren modua, publizitatean oinarritutako diru sarrera izango da, hau da, publizitatea sartzen duten enpresa edo lokalek ordainketa bat egin beharko dute beraien marka edo lokala gure aplikazioan agertzeko. Ordainketa hori adostu ahal izango da, baina, hasiera batean, denbora eta prezio lotuta egongo dira. Gero eta denbora gehiago, gero eta garestiagoa izango da. (Diru sarreraren %30)
- Laugarren modua, premium diren bezeroetatik datozen diru-sarrerak izango dira. Bezero horiek hilabetero diru kantitate bat ordaindu beharko dute zerbitzu horrengatik. Premium zerbitzuak hainbat abantaila ematen die: deskontuak, publizitate eza, web orriaren eta erreserbatzeko aukerta (Diru sarreraren %5)

Diru sarrerek modu ezberdinetan izango ditugunez, eta bi motako bezeroak ditugunez, bakoitzak bere ordaintzeko modua izango du eta bakoitzak ekarriko dizkigun diru-sarrerek ezberdinak izango dira.

Aplikazioa doain izan arren, publizitatearekin diru-sarrerek izango ditugu. Doaina denez, aplikazioa pertsona gehiagotara iristea lortuko dugu eta horrekin, publizitate garestiagoa edukiz. Publizitatea, batez ere, lokalek egingo dute. Beraien promozioak eginez edota eskaintzen dutena erakutsiz.

Horretaz gain, herritarrak aplikazioan bertan premium zerbitzua edukiko dute. Atal hori ordaindu beharrekoa izango da. Izan ere, hainbat pribilegio lortu ahal izango dira:

- Publizitaterik gabea
- Erabilera sakonagoa, adibidez, tabernako mahaia zuzenean erreserbatzeko aukera.
- Deskontuak, adibidez, jatetxeetako eguneko menuetan edo arropa-denda bateko jantzi zehatz batean.
- ...

